

4.DIRU-ITURRIAK

Segurtasuna ez dauka preziorik, eta horregatik eraztuna ez dago hain bideratua salmenta handiak lortzera. Noski salgai egongo dela, prezio oso eskuragarri batean, baina SecuRing lortzeko era nagusia gutun baten bidez eskatzea izango litzateke, zergatiak azalduz.

Arazoren bat edo indarkeria pairatu baldin ba du bezeroak, eraztuna dohainik jasoko luke, kasu hauek larriak dira eta.

Beste aldetik, bezeroa ez baldin ba du halakorik sufritu, ez genioke dohainik emango gure produktua, baizik eta gutuna erantzungo genuke eraztuna erostea aholkatzen eta non erosi ahal duen aipatzen. Hiru merkatu-arlo ezberdinetan eskaintzen ditugu; segurtasunean, teknologia berrietan eta bitxigintzan (diseinu ezberdinekin). Eraztuna, bai dohainikoa eta bai erositakoa, urte bateko garantia edukiko luke, eta edozein arazo edukiz gero, mantenimendua dohainik eskainiko genuke. Gainera, hura jasotzerakoan, kargagailu batekin etorriko zen, eraztuna beti bateria beteta edukitzeko.

SecuRing erosiz gero, 20-25 euroko inguruko prezioa izango luke, garantia eta kargagailua barne, baina ere bai posiblea izango litzateke eraztuna bakarrik erostea (noizbait galdu ba duzu) 15-20 eurotan edo bakarrik kargagailua erostea, 5 eurotan, baldin eta eraztunarekin batera erositakoa apurtu egin ba da. Dena dela eta, bihotzez uste dugu beharrezkoa ez dela izango, norbait gure produktua erosi egiten ba du, beldurra daukalako da, eta horregatik dakigu oso ondo zainduko luketela norberaren eraztuna.

Gure produktua ezagutzera emateko, pixkanaka joango ginateke. Hasieran irratian eta egunkarietan gure produktua iragarriko genuke eta hortik aurrera eta haren garrantzia jakinda, ahoz aho zabalduko zen ziur. Beharrezko dirua lortu ondoren, telebistan eta autobuseko geltokietan eraztunaren publizitatea jarriko genuke. Horrela, gero eta jende gehiago SecuRing ezagutuko luke, eta gero eta jende gehiago edukiko luke bat, seguru sentitzeko asmoz.

Jakinda SecuRing ia beti dohainik emango dela, pixka bat saila da pentsatzea nola lortuko dugun dirua, baina erantzuna erreza da egia esan. Gizarteari onura bat ematen diogunez, ondasun bat izango balitz bezala esakaini ordez, zerbitzu publiko bat bezala eskainiko zen, eta horrela zergen bitartez dirua lortuko genuke.

Gainera, gure produktuarekin lortutako diruaren zati bat estatuarentzat izango zen, eta berez, autobusen, polizien eta bestelako zerbitzuen kalitatea pixka bat hobetu ahalko genuke gainera. Horixe: SecuRing poliziaren kalitatea hobetuko luke pixka bat, eta horrela, bere erabilera errazagoa da, agian polizia gehiago lanean arituko zirelako, eta komisaldegi gehiago egongo zirelako kaleetan, erreakzio denbora gero eta hobeagoak lortuz, eta gainera, arriskuak txikitzen.